

(1)

Mutuei buruz hitzegiten dugunean, izaten dugu lehen burutazioa eta gogoia arazo hori sortu digun mutuako langileataz gaizki hitzegitea da. Askotan esaten eta entzuten ditugu horrelakoak.

ELAko militanteok, aldiz, ikuspegi politiko zabalagoa izan behar dugu gai honetan ere, gai honen atzean ere erabaki eta aukera politikoak hartu direlako. CEOEK, kasu honetan pistaren bat eman diezaguke, esaten duenean mutuak (eta hau erdaraz esango dut) “agentes estratégicos de la competitividad empresarial” direla. Hori badakigu zer den: patronalarekin elkarlanean diharduten eragileak dira, enpresen kostuak murriztu eta absentismoa kontrolatzeko. Horretaz ari dira lehiakortasunaz ari direnean.

Las mutuas de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales son entidades patronales, son patronal. Son entidades gestionadas por las empresas adscritas a las mismas y sus equipos directivos están nombrados por el mundo empresarial. Esta identificación queda muy clara con el reciente nombramiento del Sr. Lujua como presidente de Confebask. Lujua era, anteriormente, presidente de Mutualia, la mutua con mayor volumen de negocio en la CAPV, y ahora es, nada más y nada menos, presidente de Confebask.

Este poder empresarial en las mutuas explica, sin duda, su connivencia con las y los empresarios a la hora de interpretar y aplicar la normativa correspondiente en todas y cada una de las decisiones que adoptan. La legislación les ha ido dando cada vez más poder (un amplio poder para decidir el origen laboral (o no) de la muerte, incapacidad o enfermedad, para la gestión de las bajas por enfermedad común...) y claro, utilizan este amplio margen para favorecer a sus propios socios, que son las empresas.

Konnibentzia aipatu dugu, elkar ulertzea, baino harago joan gaitezke: mutuak enpresarien strategiaren parte dira. Patronalari lan zikina egiten diote, lan gaixotasun eta istripuak sistema publikora bideratuz eta beti ere enpresari gertatutakoaren erantzukizuna kenduz. Elkarrekin lan egiten dute absentismoa murrizteko, baje iraupena mozteko... Aurrez bideo eta agerraldietan ikusi ditugun era guztietako praktikak.

Askotan kasu ezberdinak judizializatu ere egiten dituzte, arazoa daukan pertsona epaitegietara joatera behartuz. Horrek suposatzen duen guztiarekin maila pertsonal eta ekonomikoan. Kontutan hartu mutuek botere handia dutela, errekurso asko (peritu gehiago...). Langilea botere horren aurka borrokatzera behartzen dute.

(2)

Mutuak nola finantziatzen dira? Langileek sortutako kotizazio sozialekin. Baliabide publikoekin, teorian “Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten erakundeak” (entidades colaboradoras de la Seguridad Social) dira, irabazi asmorik gabeko erakundeak. Baina uste duzue posible dela patronalak zuzendutako erakundeak izanik irabazi asmorik gabekoak izatea? Ez, inolaz ere ez! argi utzi behar dugu mutualitateak patronalaren beste negozio bat direla.

Las mutuas están primando su propio negocio privado sobre la función pública que tienen encomendada legalmente, que es la de velar por la salud laboral de las y los trabajadores de las empresas asociadas.

Todas las prácticas irregulares que están llevando a cabo, en concreto, el no reconocimiento de los accidentes de trabajo y enfermedades profesionales como tales (lo que llamamos infradeclaración), supone que las mutuas en el estado español tienen un superavit acumulado (una diferencia de ingresos y gastos) de 5000 millones de euros (datos de 2010). Esto es un fraude, es una situación escandalosa. El propio Tribunal de Cuentas (en un informe de 2009) investigó las irregularidades de las mutuas y concluyó que sus prácticas no se ajustan a los principios mínimos de objetividad y transparencia.

(3)

Jakina, mutuek beregan hartzen ez dutena sistema publikora bideratzen da, nahiz eta berez lan arriskueta izan jatorria gaixotasunak, Osakidetza edo Osasunbideara, gure kasuan.

Osalanek egindako informe batek kalkulatu zuen 2011an mutuek ez atenditutako lan gaixotasunen kostua (eta beraz Osakidetza bere gain hartu zuena) 106 milioi eurokoa izan zela. Ez daukagu Nafarroako daturik baina antzekoak izan daitezkeela uste dugu.

Hau oso larria da, eta gehiago abagune honetan, dirurik ez dagoela esan eta osasungintza publikoan murrizketak planteatzen ari direnean.

Zergatik ez da egiten ezer honen aurrean? Argi dago: patronalaren negozioari lehentasuna ematen diotelako, langile klasearen osasunaren aurrean.

Gizarte Segurantzarako Estatuko Idazkariak zera esan zuen duela gutxi: mutualitateak ez balira existitu, espreski sortu egin beharko zirela!

(4)

¿Por qué no se hace nada ante esta situación? También porque se apuesta por una opción política clara, que es la de la privatización del sistema de salud.

Por eso las mutuas están asumiendo cada vez mayores competencias, por eso están asumiendo la gestión cada vez mayor de las contingencias comunes (sólo les falta dar el alta)

Se está configurando un sistema que permite el control de la prestación de Incapacidad Temporal desde fuera del sistema público de salud, basándose en criterios administrativos y económicos, y no se salud: ¿Cómo? Dándole más competencias, reforzando su proceso de fusión (han pasado de 29 a 20 mutuas), pero sin potenciar los mecanismos de control sobre ellas.

(5)

Tenemos que reforzar también otra idea: las mutuas actúan como vanguardia en las prácticas de recorte y control hacia las y los trabajadores. Son la avanzadilla, alumnos aventajados cuyos modos de actuar se trasladan luego al INSS.

Como la duración de los procesos de IT gestionados por las mutuas es menor que las gestionadas por el INSS, sus métodos de quieren trasladar al sistema público.

Por ejemplo, en la última reforma laboral se le han otorgado a la Inspección Médica del INSS (no de Osakidetza) mayores competencias para controlar las bajas desde el primer día, llevando al propio INSS a comportarse como una mutua.

Otro ejemplo lo tenemos en el convenio de colaboración suscrito ente el INSS y el Gobierno Vasco, en el que se fijan tablas de duración standard de las bajas y se prima a los médicos de atención primaria si se ajustan a esas tablas. Son formas de actuación ya ensayadas por las mutuas.

Todo ello bajo la excusa de ser más eficientes y bajo el eufemismo de “racionalizar el gasto”, pero ya sabemos lo que esto significa: recortar y recortar.

(6)

Mutuetako langileak aipatu behar ditugu, beraiek bait dira zuzen-zuzenean sistemaren pribatizazioaren ondorioak jasaten ari direnak, baita ere. Pribatizazio orok prekaritatea esan nahi du, eta kasu honetan ere gauza bera gertatzen da. Alde batetik, langile publiko izaera aitortzen zaie, arlo publikoan aplikatzen ari diren murrizketa guztiak aplikatzeko. Beste aldetik, mutuak enpresa pribatuak dira, Gizarte Segurantzaren azpikontratak, eta hortaz, langileek geroz eta presio handiagoarekin lan egin behar dute, eta askotan helburu zehatzak lortzeko lan egin behar dute (erritmo biziagoak...).

Guzti honek mutuak ematen ari diren zerbitzuaren kalitatea jeistea suposatzen du, langileon osasunaren kaltetan.

(7)

En el reciente acuerdo alcanzado en la mesa de diálogo social español, UGT, CCOO y la CEOE ahondan todavía más en este modelo, supone una vuelta de tuerca que ahonda en la privatización del sistema de salud y genera aún mayor indefensión a las y los trabajadores.

Piden al Gobierno que legisle para aprobar una regulación de las mutuas basado en los siguientes principios:

Hablan de...

- Un programa específico para la gestión de las incapacidad temporal basado en la colaboración de las mutuas con el INSS y los servicios públicos de salud para el control de las bajas y su acortamiento.

- Fijación de objetivos e indicadores periódicos y mensurables
- Elaborar un ratio de evaluación del absentismo, tanto en el sector público como en el privado para eliminar el absentismo injustificado...

Todo esto ya nos suena: supone más privatización, más recorte, más control. Incluso se habla de que los ahorros de las mutuas puedan revertir en las empresas. ¿Esto qué quiere decir, se abre la puerta a una bajada de las cotizaciones sociales?

Esto es muy grave. Dicen que no están de acuerdo en que las mutuas den las altas médicas, que eso lo han pactado expresamente, pero desde luego, se está preparando el camino para que se llegue incluso a ese punto.

¿Y qué quieren conseguir CCOO y UGT con esto? Consiguen a cambio una participación en las juntas directivas de las mutuas. Nos venden que han conseguido avanzar en la democratización de las mutuas, pero conociéndoles sabemos de lo que están hablando: están hablando de más poder institucional, y no será precisamente sin cobrar nada a cambio.

(8)

Guzti honen aurrean zer egin dezakegu?

Badugu zereginik! Negoziazio kolektiboa, antolakuntza eta ekintza sindikala dira gure eskuetan dauden tresnak enpresetan mutuek duten boterea kontrolatzeko.

Mutuarekin arazoak ditugunean, askotan galdetzen digute langileek zer egin, nondik jo. Zoritxarrez, enpresak behin erabaki duenean kontinjentzia arrunta mutuarekin kontratatzea, juridikoki ezin daiteke gauza handirik egin, mutuaren eskuetan gaude. Bidea hori ekiditea da hain zuzen, eta ekintza sindikalaren bidez lortu behar dugu enpresak mutuarik ez kontratatzea kontinjentzia arruntetarako, edo kontratatuta badu, Gizarte Segurantzara bueltatzen saiatu behar gara.

En este punto sí podemos incidir con la acción sindical. Tenemos que presionar para que la empresa no contrate las contingencias comunes con la mutua o para que en caso de que la tenga, para que vuelva a la Seguridad Social. Quien elige cómo y con quién contratar es el empresario o empresaria, aunque tiene la obligación de consultar a la representación sindical, que deberá emitir un informe. Dicha consulta no es vinculante, pero sí preceptiva. Muchas veces incumplen esta obligación. Debemos que exigir que se nos consulte y tenemos que condicionar dicha elección.

Por tanto,

- Primero, tenemos que saber qué situación tenemos en la empresa. ¿Cómo está la gestión de las contingencias comunes?
- Si la gestión todavía está en el INSS, evitar a toda costa que se derive a la mutua.
- Si la gestión está contratada con una mutua, (la mayoría de los casos), tenemos que darle la vuelta a la situación y exigir en el pacto o convenio de empresa la vuelta a la Seguridad Social.

Hori gure eskuetan dago. Horregatik esaten dugu: “Ez diegu utziko langileen osasunaren kontura aberasten, STOP al negocio con nuestra salud”.

Lan osasuna klase borrokaren beste atal bat da. Enpresariak mutua bat kontratatzea erabakitzen duenean gure osasunaren kontura bere kostuak murriztea erabakitzen ari da. Gure osasun arreta pribatizatzeko atea irekitzen ari da, eta guk hori ezin dugu onartu inolaz ere.

(9)

Bukatzeko, gogoratu mutuen erabaki ezmoraleen atzean egoera pertsonal eta familia arazo larriak daudela kasu askotan

Kapitalismoa krudela da, etekin ekonomikoa bilatzen du beste edozerren gainera. Mutuak horretarako beste tresna bat dira, langileen osasunaren gainera pasatzeko beste modu bat. Sar ditzagun beraz, mutuen kontrako borroka eta gure osasunaren defentsa gure eguneroko ekintza sindikalean. Kasu honetan geure bizi kalitateaz ari gara.

Ez diegu utziko gure osasunaren kontura aberasten!